

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

114n. Zenbakia **Abendua**
1987



AÑOBEROS GOTZAIÑA TA TARANCON GOI-GOTZAIÑA

- Alkar-izketa gaitxa.
- Eleiza eta gizarte-ikuspegia
- Alkar-izketa eta alkar-maitasuna batera
- Ebanjelioaren argia erriko arazoetara
- Fedearen oiñarrian giza ta erri-eskubideak

GALLASTEGI'TAR KAULDI'NORIPENEZ

Lerro oneik idatzi baiño egun batzuk lenago, aspaldian gaisorik aurkitzen dan on Gallastegi'tar Kauldi apaiz zintzo ta euzkaldun jatorra ikustera joan nintzan Gorlitz'era, aspaldiz bertako osatetxe apain baten aurkitzen dalako, bera dan baiño geiago atsekabetuta, bearbada iruntzita daukolako bera, ezingo dala geiago zendatu.

Gure ZER onetako irakurlerik asko jakingo dabe bearbada, on Kauldi gaisorik dala, baiña, gitxi dira berari ikustalditxu bat egiten bertaratutzen diranak, euzkotarrok ez garalako bear gendulako oroikorrak, gauza batzuetan beintzat, on Kauldi'gaz adierazoten dogunez.

Neuk nai neban baiño itzaldi laburragoa egin neban beragaz, bada, gaixoa itz ugarikaz aspertu baiño ez da egiten. Orixe bai; ausartu nintzan galderatxu bat egiten:

—On Kauldi, euzkaldun asko dira ikustatzen etorten jatsuzanak?

—Bai, ba'dira banaka bat bertoratutzen diranak.

On Kauldi, soiñez dauan aunditasuna baizen aundiagoa da apaltasunan eta, ziarri orretara erantzun euskun gitxi batzuk baiño ez dirala bera ikusten osatetxe ortara doiazanak, bertan norbaitek esan euskunez.

* * *

Orañarte bertan, Euzkadi onetan, Jagoikoa lagun, bizi garan euzkotarrok, batez-bere euzkaldun uzkuetzaleok, zor asko dautsoguz Gallastegi'tar Kauldi apaiz zintzo jatorrari: Lenen apaiz lez, francotarren agintza zitalean beste iñor auzartzen ez zan aldian eta ondoren, egin eban lan bikaiña bertako eleizbarrutian, bertako txiroen tartean eta, baita "eleiza-ofizialek" urrunduta aurkitzen ziranen tartean bere. Eleiza bera, ez zalako euzkotar siñiskorron eleiza izan be.

On Kauldi'k beti aldeztu eban, iñoren zitalkeriai bildur barik, benetako eleiza, Kristo'ren eleiza, euzkotarrok nai dogun eleiza bakana ta egizkorra eta, ez aberatsen neurrikoa eta agintari zitalaren morroitzakoa. Eta, orixe aldeztu eban beti on Kauldi'k bildur barik.

Ortixik gaiñera, baita zor aundia dautsegu gure izkuntza, EUZKERA maite dogunok, berak Andoni deuna'ren txadonan, eleizan, bera izanik bertan eta Bilbo guztian, lenengoz euzkerazko meza ospatu ebana, jaupa edo meza ederra, berak izparringi ta aldizkari bitartez eta euzkeraz idatziaz, bai itz-neurtuz eta bai

itz-lauz egin eban lan onura-garria gaitik. Lan ori, ez dogu iñoiz aztu bear abertzaleak ba'gara.

* * *

Idazlantxu onek argia ikusi dabeneko, barriz bere (J.L.) bertan izango gara bera ikustatzen, bada, naita osatetxe apaiñian aurkitzen dan eta ziarri ondo adituta, osatetxea da eta osatetxeak beti dira goibelak. Gaiñera, adore gitxigaz ikusi gendun eta benetan atsekabez agurtu genduan.

Gaminitz'eko uri osasungarri apaiñetik alde egiñez goiazala, beste samin bat euki neban eta oraíndik ez jat kendu ta kenduko bere: Gaminitz'en izen jatorra erdel-izkiz nastuta ikusiteaz, bada, "Plencia" naita /z bat bitartean sartu, beti izango da erdel-itza. Plentzia idatzitea, oso naskagarria da, euzkera ondo ez dakienak edo euzkera garbia, jatorra ikusi nai ez daberen zatarrak bakarrik idatzi leikiena.

Guk baizen ondo edo obeto jakin bear leuke Gaminitz-tarrak, XIV gizaldian "Díaz de Haro"tar betek, ez dakit zenbat'garrenak, Gorlitz'eko lurraldean, Gaminitz baserrietan sortu ebalá Plencia uria, izen orregaz erritasun edo uritasuna emonaz.

Ez ete dago Gaminitz'eko udal-etxean Endore, ziñegotzi edo beste norbait euzkera dakianik edo, zerbait maite daberenik "Plentzia" txarto idatzita eta beraz ainbat txarrago euzkeralduta dagola igarriteko?

Bein euzkeralduten asi ezketiño, zergaitik ez dautse jetorritzko beren izen txukuna GAMINITZ ipinten?

Noiz arte iraungo dogu nasketa zikiñak, naskagarriak geure izkuntza bardingabea, EUZKERA'gaz egiten? Azkenengo urteotan beintzat, tamalgarria da euzkerazko iragarri ta idazkera batzuk ikustea. Noiz arte?, gitxienez geiago abertzaletutzen garan arte.

AÑOBEROS GOTZAIÑAREN GOMUTAZ

Antonio Añoberos, Bilbo'ko Gotzain izandakoa il jaku oraintsu eta ZER gure aldizkarian jazokizun onek bere oiartzuna izan bear dauala uste dogu.

Añoberos jaunaren jokabidea nok aztertu izango da zenbaki onetan. Orregaitik lan au kondaira apur bat egiteko da.

Euskaldun geienok sinistedunak gara eta Eleizearen jokabidea Erriaren aurrerapenerako danean pozik ikusten dogu, baiña, zori txarrez, Eleizako Arduradunak orretan okerreko bidea artzen dabenean, ori oso mingarri biurtzen da.

Guda-inguruan asi eta gaur arte izan dogun kondaira, arlo onetan, jakingarriz beterik daukagu. Jakiña, au lako lan labur baten ezin dana azaldu ta argitu, ez eta urrik emon be, baiña gure irakurleen argibiderako aundi-aundi batzuk esaten aleginduko gara.

* * *

MUXIKA GOTZAIÑA

Azkenez, guda aurretuan euskaldunak gotzain euskalduna izatea lortu genduan. Zergaitik izan ete dira gure Gotzaiñik geienak erdeldunak?

Muxika gotzain giputzari aldi nastatuetan Gotzain izatea etorri jakon eta aldi nastatu oneitan, jakiña, olatuen artean itxas-ontzia ibiltan dan antzera ibilli bear izan eban.

Euskalerrriaren alde emon eban zentzuzko pausu bat gudaldian onartua izan zan Araudiaren alde autarkia emon leikela esatea izan zan. Eta oben ori ez eutsoen iñoz parkatu Euskalerrriaren arerioak, or dago Mateo Muxika Gotzaiñaren zori txar guztien oiñarria.

Eta guda-aldian bere artaldea zati bitan banatuta ikusten eban, batzuk gudaren alde batetik (arabarrak) eta beste batzuk beste aldetik (Bizkaiatarrak eta giputzak).

Aldi orretan gure Muxika jauna, Iruña'ko Gotzain eta semez bizkaikoa zan Olaetxea jaunagaz alkartu zan, eta bien bultzagille Toledo'ko Goi-Gotzain, España'ko Len-Gotzain eta Kardenal zan Goma Jauna. Biak izenpetuta Gotzain-Idazki lotsagarri bat argitaratu eban. Orduko Gotzain-Aldizkari Nagusian irakurri daiteke.

Ez dakigu Olaetxea jaunak agiri orren damurik iñoz agertu eban, bai oster gure Muxika jaunak, Erbestean egoala Nire Kontzientziaren Aginduak (Imperativos de mi Conciencia) idazpurua daroan agiria argitaratu eban onek eta an argitzen dau arazoa.

Gudaldia zala, Franco'tarrak urreratu jakozan eta España'ko Banderearen alde zin egitera beartu eban, Gazteizko Seminarioan. Zin ori ezin egin leikela esan eban Gotzaiñak, bere askatasuna aldezteko. Ondoren lez erbestera bialdu eban eta an egon zan urte batzutan, Ipar-Euskalerrian.

Gero, Carmelo Balester Gotzain zala eta onen alegiñez Zarautz'era etorri zan. Egun baten bere etxean egoala Gotzaiña (Carmelo Ballester) etorrela bera ikustera esan eutsoen. Ordua eldu zanean, bere gelan belau-niko itxaron eutson Muxika jaunak. Carmelo Gotzaiñak zutuntzeko eskatu eutson, baiña belau-niko jarraitzen ebalu ikusirik, bera be belau-nikatu egin zan eta gotzain biak alkar besarkatzen ziran artean auxe esan eutson Carmelo Gotzaiñak: "Goztain-arteko anai lez eta Martir lez besarkatzen zaitut".

Zarautzen jarraitu eban Gure Muxika Gotzaiñak eta antxe izan genduan bera agurtzeko aukerea. Itsututa egon arren, zartzaro onean eldu jakon eriotzako ordua.

LAUZIRIKA GOTZAIN-ORDEA

Muxika jauna erbestera joan zanean, Lauzirika ta Torralba'tar Xabier Jauna izendatu eban Gotzain lez eta Gotzaiñaren lekua artzeko, Apostolu-Zaintzaille zala.

Au euskalduna genduan, baiña bere jokabidea erri-arloan benetan lotsagarria izan zan. Oso-osoan Franco ta bere aldekoen menpera jausia.

Gu seminarioan gengoan aldi aretan eta benetan maite genduan. Asko goratu eban Gazteiz'ko abade-gaien etxea eta beti esaten eban abadea ez zala politika-arazoetara sartu bear. Guk ikusten genduan bera belarrietaraiño sartuta egoala, baiña...

Ezelako erri-kontzientzi barik azi ginduezan etxe aretan, naizta beste bide batzutatik erri-zaletasun ori eskurtatu. Antxe irakurri al izan genduan Muxika'ren "Imperativos..." idazkia eta udaldi baten baita Agirre Lendakariaren De Gernika... liburua.

Muxika' jaunak bere gotzaintza itzi ebanean, ba-eukan Lauzirika jaunak Gazteiz'ko Gotzain izateko guraria, baiña ez eban lortu. Erriaren gorrotoa (odium plebis) eukala esan eutsoen eta ori eleiz-legeetan eragozpena zan. Agur egiteko egin eban berbaldian, umeak baiño ez dakiela parkatzen esan eban.

BALLESTER GOTZAIÑA

Lauzirika jaunaren ondoren, barriro asi zan gotzain erdeldunen aldia.

Muxika'k utsik itzi eban lekurako Carmelo Ballester Gotzaiña izendatu eban. Biotz oneko gizona. Baiña ez euskaldunentzat gotzain izateko egokia. Ez eukan beste ikuspeirik España'tarrena baiño eta au be Franco'ren jokabidetik baiño ez.

Konpostela'rako Goi-Gotzain izendatuta egoala, Ma-drid'en il zan.

ELEIZEA

IRU GOTZAIN ERDELDUN

Ballester jaunaren aldian, alde batetik Gazteiz'ko Eleizbarrutia aundia zalako eta bestetik Franco'tarren politikearentzat Eleizbarruti ori zatitzea ondo etorrelako, Eleizbarruti ori iru zati egin eben eta Donosti ta Bilbo gotzain-uri biurtu.

Orrelan iru Gotzain izentatu ebezan iru eleizbarrutietarako eta Bilbo'ra Casimiro Morcillo gotzaiña etorri jakun.

Casimiro jauna zurra zan eta maltzurra be bai. Orregaitik, asieratik euskerearen alde jarri zan. Eleizbarrutiaren sortze-agiria Bilbo'ko Santiago'ren Gotzain--Eleizan erderaz eta euskeraz irakurri zan. Euskerazko irakurketa Aurtenetxe'tar Franzisko jaunak egin eban. Eta Eleizbarrutiko Agiri Nagusian be agiriak euskeraz eta erderaz agertzen ziran.

Euskera ikasteko alegin apur bat egin eban Casimiro jaunak, Eusebio Martija irakasle ebalá, baiña euskerearen aditza jakiturizkoa zala eta ortxe aurkizen ebalá oztopoa esan eban. Ezin ikasi.

Casimiro jaunak ez eban ulertu Euskalerrriaren arazoa eta izatez Franco'tarra zan. Dana dala, pastoral arloetan oso langillea ta burutsua.

GURPIDE GOTZAIÑA

Casimiro jaunaren urrengo Gurgide Gotzaiña etorri jakun Bilbo'ra, Otxagabia'ko naparra, erdi euskalduna. Bere ama euskalduna zan eta Otxagabia'ko euskerearen jakingarri batzuk emon eutsozan Azkue'ri.

Gotzaiñen artean euskerearen areriorik aundiena izan genduan Gurgide jauna, ez bear ba'da barruak ori eskatzen utsolako, baiña bai agintarien aurrean oso-osoa makurtuta egoalako.

Alde batetik arazo ori zala-ta, bestetik bere jokabidea oso laburra eta okerra zalako, bai artzain-lanean eta bai gizabidean, naste ikaragarriak sortu ziran Bizkaia'n Gurgide jaunaren aldian eta abaderik geianak aurrez-aurre jarri jakozan. Benatako ondamendia ekarri eban Bizkaia'ko Eleizearentzat Gotzain onek, eta oraindiño be bear ba'da, ondorenak zuzentzeko dagoz.

Izan ziran ondoren onak be, batez be bere aurka jokatzeko indar asko alkartu zirala. Berak esan eban bei baten J. A. Agirre'k esan ebalá bera zala euskerearen alde geien egin eban gotzaiña. Baiña J. A. Agirre'k ori esateko eukan errazoiá auxe izan zan: Gurgide jauna euskerearen aurka jarri zalako erria bizkortu egin zala eta orrelan euskal-zaletasuna sortu.

Abadeen aldetik, Gurgide jaunak erantzunik gogorena artu eban, baiña arazo au argitzeko idaz-lan au baiño luzeagoa bearko litzake. "Gogortasuna" izena artu eban abade-taldea Derio'ko Seminario'an egoala il zan Gurgide Gotzaiña.

ZIRARDA GOTZAIN-ORDEA

Eleizbarrutiaren egoerea larria zalako eta Gurgide Gotzaiñaren eriotzeaz sortutakoa arazoa bideratzeko,

Santander'en Gotzain zan Zirarda'tar Jose Maria jauna izendatu eben Bilbo'ko Eleizbarrutiaren Gotzain-orde arduradun.

Zirarda jaunaren jokabidea, Gurgide Gotzaiñarena baiño zuzenagoa zan baiña arazo larriak ez jaken beti erantzun argia emon. Jaiotzaz Bizkaia'tarra da, baiña euskalduna izanik, euskerea erdi-aiztuta dauko. Egiten dau alegin euskeraz itz egiten. Orretan gogo ona ikusten jako.

Bere arduradun-aldi orretan egin ebazan alegiñak bizkaiko arazoak bideratzen eta eleizbarrutia eratzen, baiña alegin orreik erdi-bide baten geratu ziran. Añoberos'en aldiatarako bidea gertatuta geratzen zan.

AÑOBEROS GOTZAIÑA

Bizkaia'ko irugarren Gotzaiña dogu ba oraintsu il jakun Añoberos jauna. Naparra jaiotzaz eta euskerarik ez ekiana. Arazo au zenbaki onetan beste idaz-lan baten aztertzen da.

Añoberos Gotzaiñak Bizkaia'ko Eleizbarrutiari eban-jelio-giro bat emon eutson eta bare eginkizunik gogoangarriena berbaldi ospetsua izan zan.

Aldi orretan Joan Mari Uriarte egin eben Gotzain laguntzaille eta arazoak bideratzeko laguntza aundia etorri zan izendatze onetatik.

GAURKO GIROA

Gotzain euskaldunak eta ebanjelio-bidetik joketzen dabenak eskatzen genduzan abadeak eta abadeakaz batera erriak be bai: Aundikeri guztiak alde batera itzi eta benetako kristiñautasunaren bidea artzeko gogoá agiri zan.

Orretan asko aurreratu dala ezin ukatu izango dogu: Gaur euskalerrian daukaguzan gotzaiñak guztiak dira euskalerrian jaiak eta bat bakarra da euskerarik ez dakiana, Gasteiz'koa, besteak geiágo edo gitxiágo euskeraz berba egiten dabe eta Euskalerrriaren erri-eskubideak aldeztan guztiak alegintzen dira, eleizbarruti bakoitxean bertako giroa aitzu barik. Asko da ba aurreratu dana, naizta oraindiño bide luzea euki aurrera jarraitzeko, batez be ebanjelizatze-lana erriak bear dauan bestean euskeraz egiteko.

Egia da Iparrandean be ba-daukagula beste Gotzain bat Baiona'koa, naizta bere Eleizbarrutia euskaldunak eta euskaldun ez diran lurraldeak osotu.

Ez da sarritan entzuten euskal-arazoetan Baiona'ko Gotzaiñaren barririk, baiña oraintsu Frantzia'k ETA'-ren aurka jokatzeko artu dauzan bideak diralata, egin dauz agerpen gogoangarri batzuk euskaldunak goratuz eta euren eskubideak aldeztuz.

Baiona'ko Gotzaiñak ez daki euskerarik, baiña euskal-arlorako Ordezkarri bat eukiten dau "impedimentim Linguae"edo izkuntzarako oztopoa bideratzeko.

Egin danagaz poztu gaitzean eta aurrera jarraitzeko gogoá indartu dagigun.

GAMIZ'ek

AÑOBEROS GOTZAIÑA

(† 1987-10-24)

Urrillaren 24'an, goizaldian il jaku Añoberos'tar Antonio, Bilbo'ko Gotzain izandakoa. Jaunak bere betiko Erreñuan artu dagiala gure artzain adoretua izandakoa.

Añoberos Gotzaiñaren bizitzan eta jokabidean alde on asko aurkitu daitekez, baiña nik bat aitatzekotan, auxe gogoratuko neuke: Entzuten jakin eban, abadeai entzuten, erritarrai entzuten, Euskalerrriaren oiur larria entzuten.

Bere omenez idazlantxu apal au egitea otu jat. Egia esan apur bat lotsor aurkitzen naz idazkiñaren aurrean, jazoera orreitan neure burua agertu bearra dagoalako. Baiña gauzak diran lez jakin eta agertu bear dirala uste izanik, aurrera egiten dot egin-bear au betetean. Ez dago arokeririk, bai egi-zaletasuna gurari onetan.

* * *

ALDI LARRIAK

Pablo Gulpide Gotzaiñak gure eleizbarrutian izan eban jokabidea, eleiza-aldetik naiz erri-aldetik begiratu-ta, lotsagarria izan zan. Eta berak euskerearen aurka izan eban ekiña ez da errez aitzutekoa. Ori zala-ta, eta Erria ainbeste urtetan Franco'ren zapalkuntza-pean asper-tuta egoalako, Euskalerrriko Eleizea ta erria bera aldi larri baten aurkitzen zan. Zapalkuntza guzti oneri erant-zuna emon-gurean sortu zan abadeen artea "Gogortasuna" taldea. Talde onen ekintzak ezagunak dira eta lan au larregi ez luzatzeko, ez dodaz emen azalduko.

Pablo Gulpide il zanean Gogortasuna Derio'ko Seminarioan egoan eta Erroma'n Aita Santuari talde orren agiria aurkeztzen geuntson. Bertan gengoza il zan Gulpide jauna eta ordu gitxi barruan izendatu eben Zirarda'tar Jose Maria Gotzain-orde edo Apostolu-Zaintzaille. Gogortasun-taldean aurrera jarraitzen eban eta giro onetan izan zan Añoberos Gotzaiña Bilbo'rako izendatzea.

* * *

CADIZ'era

Añoberos jaunaren izendapena ez jakun gogoko izan: Franco'ri zin egiña zan, euskerarik ez ekian eta Bizkai'ko Eleizeagaz ezelako alkar-izketarik izan barik etorren.

Arazo au aztertu ondoren, Cadiz'era joan eta beragaz berba egitea erabagi genduan.

Cadiz'en Gaiso-Etxe baten bizi zan eta antxe artu ginduzan. Ona emen, gitxi gora bera, beragaz izandako alkar-izketea:

Guk: —Entzun dogu Bilbo'ra zatozela Gotzain eta guk, Gogortasuna abade-taldearen izenean, geure erixia agertu nai dautzugu.

Berak: —Ederto. Pozik nago entzuteko.

Guk: Ez dogu uste Bilbo'rako Gotzain egokia zaranik, Franco'ri zin eginda zagozelako, Euskerarik ez dakizulako eta Bizkai'ko Eleizeagaz ezerlako alkar-izketarik izan ez dalako.

Berak: Franco'ri egindako ziñak ez dauka nigan eze-lako indarririk, gogoan be ez dot eukiten. Euskerea jakitea bai, bearrezkoa dala ikusten dot eta ikasten asi be egin nintzan baiña ez neban lortu eskuratzerik. Ori, bai, eragozpen aundia dala ikusten dot, baiña nik Aita Santuaren esana egin bear dot eta Aita Santuaren agindua joateko da.

Guk: Orduan, len lez, nekepean jarraituko dogu.

Berak: Nik alegin guztia egingo dot zuen nekeak arintzeko.

Alkar-izketea luzeagoa izan zan, baiña mamiña or dagoala uste dot. Gero maitekero agurtu gintzazan eta barriro gure Euskalerrira biurtu.

Etorri zan bere sasoiñ Añoberos jauna. Jarraitu dagigun orain, bera etorri eta gero izandako arazo batzuk argitzen.

* * *

LENENGO ARAZOA

Abade-taldeak artutako erabagi bat arri-idatziai buruzkoa izan zan.

Gure eleizarik geienak, barruan edo kanpoan, arri idatzi batzuk eukezan. Arri orreitan gudaldian alde bategatik ildakoen izenak agertzen ziran, baiña ez bestetik ildakoenak. Ori Franco'k guda-ostean Eleizeagaz egindako itun baten ondorena zan, baiña Euskalerrriko Eleizearentzat benetan makurketa lotsagarria, arerioak santu lez artuta eta erriko seme zintzoak, euren artean amairu abade, guda-giroan ildakoak, alboratuta.

Gogortasuna abade-taldeak arazo ori aztertu eban eta arri idatzi orreik eleizetatik kentzeko erabagi. Gaur iñok ez leuke eztabaidan ipiñiko erabagi orren zuzentasuna, baiña aldi aretan arrisku aundiko erabagia zan.

ELEIZEA

ZEANURI'n

Zeanuri'ko eleizan, ate nagusian iru olako arri egozan. Albo bietan erriko aberats izandako biri eskiñiak. Arriak berak iñoan ori: "Ilustre hombre de finanzas y católico ferviente". Eta ate buruan irugarrena, len esandako erritarren zerrendea eukala.

Erritarren batek, guztiok dakigu Zeanuri'n Patxi nor izan zan, eskatu be egin eban, eta lenagotik, arri ori kentzeko, baiña au ezin agertu izan da gaur arte. Errez ulertzen da zergaitik.

Abenduaren 22'a izan zala uste dot, Zeanuri'ko abade nintzan onek, iru arriok ormatik askatu eta bota nebazan eta egun beratan eldu jakon albistea Bilbo'ko Goberbatzaillleari.

* * *

ZIGORRA

Laster etorri zan Gobernatzailllearen aldetik eskutitza: 150.000 pezetako zigorra, udaletxera eskutitz bat euskeraz egin nebalako, eleizan egoan eta udaletxeok jarten ziran lenengo aurkia kendu nebalako eta arri idatziak bota nebalako.

Zigor ori ordaintzeko gertu egoan bat be agertu zan, baiña okerkeriak ez dirala estaldu bear uste izanik, ez zan iñoz ordaindu, baiña bai izan ebazan bere ondorenak.

EPAITEGIRA

Urrengo, Durango'ko Epaitegira dei egin eusten.

Epailleak: —Egia da abenduaren 22'an parrokian arri-datziak bota ta apurtu dozuzala?

Abadeak: —Arazo orreri buruz ez daukat ezer esatekorik. Abade lez eta Eleizan egindako gauzea da eta Gotzaiñaren aurrean baiño ez dot erantzuten.

Epailleak: —Orduan zuk bidean berebillagaz gizon bat ilten ba'dozu be Gotzaiñari erantzungo dautsazu.

Abadeak: —Kontuz, Epaille jauna, nik ez dot iñor il eta burubide ori agertzea be ez dot onartzen.

* * *

ONDASUN-BAITZEA

Gero ondasunen baitzea etorri zan. Gorabera batzuk izan ondoren, etxera etorri ziran baitzeko ondasunik izan ezkerok, baitze edo enbargua egiteko. Etxe guztia ikusi eben erriko gizonak eta ez eben baigarririk aurkitu eta agiria izenpetuta gero, joan ziran.

Orrelan zigorra ordaintzea eziñezkoa biurtu zan eta beste bide batzuk artu bear ziran ekintza au garbitzeko.

ESPETXERA?

Berez, urtenbidea, espetxera joatea zan, baiña España'ren eta Batikano'ren artean egoan orduko itunak ez eban ori onartzen eta beste bide bat billatu bear izan zan.

Eta gorabera guztiok azaldu ondoren emen agertzen da berrero Añoberos Gotzaiña. Edestia lar luzea izan ete dan nago, baiña arazoa argitzeko bearrezkoa.

Zigorren ordezeko baitzea edo "arresto subsidario" non bete erabagiteko Añoberos jauna ta Gobernatzailllea alkartu bear ziran eta orrelan egin eben.

Añoberos'ek dei ginda esan eustan:

—Arriak kontuz kendu nai izan zenduzala, baiña jausi egin jatzuzala entzun dot. Ori orrelan da?

—Ez, jauna, bota egin nebazan eta ondo botata eta ondo ezereztuta dagoz, Eleizeak aldeztu bear dauan barditasuna zaintzeko.

—Bai. Jokabide ori Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiaren bidean dago, baiña-gogorkeriaz jokatu dozu.

—Gogorkeria izatekotan arrien aurka!

—Dana dala, Gobernatzaillleagaz berba egin dot eta Olite'ko Lekaide-Etxera joan bear dozu illebetterako.

—Joan egin bear dot ala eroan egin bear nabe? Joatea norberaren burua errudun agertzea ez da?

—Ez. Mesedez zoaz.

—Zeuk diñozulako, joan egingo naz.

—Beste gauza bat. Arria udaletxean ipiñiko dabe eta ori gure arazoa ez dan lez, ez dautset ezer esan.


—Ori be ez dago ondo. Eleizara fededunak etorten dira baiña Udaletxera erritar guztiak joan bear dabe.

—Bai olan da. Ez nintzan orretzaz konturatu.

—Eta beste gauza bat. Arri ori bedeinkatu egingo da eta orretarako kanpoko abaderen bat eroan nai izango dabe. Ez aitzu zeintzuk diran berorrek bedeinkapenak egiteko emon dauzan arauak. Eta ori orrelan egin eta kanpoko abaderik etorten ba'da jakingo dot zer egin.

—Emendik ez da iñor joango, baiña ba-leiteke soldaduen kapellauen bat joatea...

Eta orrelan izan zan. Bedeinkapenean kapellau-militar bat izan zan eta iraiña bardintzeko jentetza batu eben Zeanuri'n. Berrogei autobus etorri ziran eta Gobernatzaillleak berbaldi gogoangaria egin eban Zeanuri-ko Urralburu Plazan. Gero ormetan idazkiak egin ebezan eta abar...



Añoberos Gotzaiña VI Paulo Aita Santuagaz, berbaldiaren goraberea izan ondoren (*DEIA*'ko argazkia).

OLITE'n

Santiago Apostoluaren jai-egunean, Ipiñiburu'n Meza nagusian berbaldia egin ondoren joan nintzan neure berebillean Olite'ko Frantzisko'tarren lekaide-etxera. An igaro neban illea baketsua ta gozatsua izan zan. Iñoz urten be egiten giñan lekaide-etxetik, baiña etxe areri lotuta gengoan.

Ara etorri zan Añoberos gotzaiña, Jose Angel Ubie-ta lagun ebala, ikustaldia egitera. Lekaide-etxearen albo-ko baratzean ibiltaldi naikoa luzea egin genduan, arazo sakonetara sartu barik.

* * *

AÑOBEROS'en ESTUALDIA

Urte batzuk geroago jazo zan Añoberos Gotzaiña ospetsu egin eban jazokizuna.

Eleizearen aldetik artu-bako gauzea zan Euskal-erriak bere nortasuna, bere izkuntza ta bere jabetza zaintzeko eukan eskubidea. Aberri guztia begira, ori argi agertu eban XXIII Jon Aita Santuak Bakea Lurrean edo Pacem in Terris eritxon eskutitz zabal aretan: Aberriak edo etniak euren eskubideak, jakintzak, ta abar... zaintzeko eskubide osoa dauke eta Laterriak eskubide orrei indarra emon bear dautse, baiña etniak edo aberriak be ez dabe laterriaren alde ekin eta ekin jardun bear..., baiña ori euskal-erriaren eskubideetara ekarte, egin barik egoan eta egin-bearrekoa zan, baita gure aldetik sarritan eskatua be.

Arloa zabalago artuta, orixe zan Añoberos ain estu artzeko zioa izan zan berbaldia. Eginbear bat betetea besterik ez zan.

* * *

ELEIZEA

IKUSTALDIA

Añoberos Jauna bere etxetik urteteko baimen barik Indautxuko bere bizilekuan egoanean, bera ikustera joan nintzan. Bitan besarkatu nindun Añoberos'ek eta mai-tekiro besarkatu be, eta nik esandako berba batzui erantzun au emon eutsen: "Au Euskalerrriaren alde egin leikenik gitxieta da. Nik esan dautset Aita Santua-ren agiri barik ez etorteko ni ateraten edo etortekotan pistolakaz etorteko, olan izan ezik ez nazela joango-ta".

AÑOBEROS ZEANURI'n

Baiña, jazokizun gogoangarri ori izan baiño lenago izango zan, egun baten Gotzaindegitik deitu eusten Zeanuri'ra eta auxe entzun neban urrutizkiñez: Antonio Añoberos Gotzain jaunak Zeanuri'ra ikustaldia egin nai leuke, eta orretarako zure barria jakin nai dau.

Nire erantzuna argia ta garbia izan zan: Ni ez naz inor bere artaldea ikusteko gogo onagaz datorren artzaiñari eragozpenik ipinteko eta datorrela nai dauanean.

Eta etorri be egin zan. Meza bi esan ebazan, biak euskeraz eta berbaldiak lenengo zatia euskeraz eta bigarrena erderaz, au luzeago, egin ebazan. Ez ekien euskerarik, baiña alegiña egin eban eta gogo ona agertu be bai.

Mezea amaitu ebanean, erdeldun batek euxe esan eutson: Nik ez dakit euskerarik eta erri onetan ez dago mezarik erderaz.

Orregaitik Villaro'ra joan bear izaten dot mezea entzuteko (Gizon ori Palentzia'tik etorritako basozaiña zan).

Gotzaiñaren erantzuna auxe izan zan: "Ulertzeko gauzea da Zeanuri lako erri euskaldun baten mezak euskeraz izatea eta Villaro urrin be ez dago".

* * *

AGUR GOTZAIN, AGUR ADISKIDE!

Ez etorteko, eta arrazoiak, esan geuntson gotzaiñak onak urten euskun. Orrelantxe izaten dira sarritan gauzak. Nik ez neuke esango Añoberos abartzalea zala, eta ez bear ba'da Euskalerrriaren arazo korapillotsua zuzen ulertzen ebala be, baiña bai gizon zentzunduna, ebanjelio-bidekoa, sendoa ta zuzena zala, eta orregaitik Euskalerrria eta Bizkai'ko Eleizea eskerrak emon-bearrean dagoz.

Asieratik alkarrari gauzak diran lez azalduta, bear dan itzaltasuna galdu barik adiskide izatera eldu gintzazan, benetan alkar maite genduan, eta gure artetik joan jakun aldi onetan, ez daukat besterik esateko auxe baiño: Agur Gotzain eta adiskide. Egun aundira arte.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuiñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

– Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.^a, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

– Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta
- 2.^a 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4.^a 10.000 pezeta

– Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

EUSKAL LIBURUEN ETA ALDIZKARIEN ARGITALPENAK GAUR

JAUN-ANDREOK, ARRATSALDEON!

Arlo onetaz zeozer gertatzeko eskatu jatan joan dan urtarrillaren azken egunetan. Euskeraren aldeko ekin-tza bat zan ezker, bereala emon neutsan nire baietza itzaldion antolatzaileari, naiz eta neure barruan kezka batzuk izan.

Gaiak, berez, azterketa sakon bat eskatzen-dau, gaur emen nik neuk eskeiñiko deusuedana baiño sakona-go. Arazoa, euskeraren arazoa, egia esan, ez da gaur eguneko zeaztasun utsak ezagutzea, dato orreen arabe-ra etorkizunerako ondorioak ateratzea baiño eta.

Beraz, gaurko itzaildi au gertatzerakoan sortu jatan leenengo kezka auxe zan: ZER ESAN BEARKO NEU-KE "GAUR" ETA "ARGITALPENAK" itzak aurretik jartzean:

1. "Gaur" itzak zer adierazotzen dau: azkenengo urtea ala azken urteotan liburugintzan izan diran emaitzak?

2. "Gaur" eta "emaitzak" aitatzerakoan, zer adiera-zi nai da: Erri mailan eta Erakundeetatik egin diran aalegiñak ala, argitaratutakoak argitaratu ondoren lortu diran emaitzak.

3. "Argitalpenak" aitatzea naiko da ala oneen aurrean irakurleak dauan jarrera be aztertu bearra legoke.

4. Zenbateraino ez litzakigu komeni izango egin diran aaleginak aitatuz gain, etorkizunera begira ditugun utsu-neak be aitatzea.

5. Eta "utsuneak" esan dogun era berean "arris-kuak" ere esan geinke: zer gertatu daiteke erri onetan gaur egun Euskal Errian berton kokaturik dagozan Erdal Argitaletxeak orain arte emon dabezan pausu urriak ugarituko baleuez? Zer gertatuko litzateke gaurko Eus-kal Argitaletxeekaz?

Edo, beste arlo batera jota, euskeraz gitxi irakurtzen dala esaten badogu, ez ete legoke "zergaitik" itaundu eta sakon-sakoneko arrazoiak billatzen sailu bearra. Sarri-tan onetan be erabiltzen diren arrazoiak azalekoegiak izaten dira: batzutan izkuntzarekiko norberaren eritxi politikoak indar geiegi izaten dau; beste batzutan ez da konturatzen arauak goitik-beera jartzeagaitik bakarrik arazoak konpontzen ez direna; beste askotan ez da errez izaten, idaztean beintzat, irakurlea kontutan iza-nik idaztea: gerta daiteke pedagogia arauak era bate-koak izatea eta idazleak bere lanean lortu nai dauan tasun mailak beste elburu batzuk izatea, irakurlea barik.

6. Beste batzurentzat, ostera -eta ala erakutsi da bein baino geiagotan- arazo au soziologia ikuspegitik aztertu bearra dago. Edo, obeto esateko, euren lanak ikuspegi orretatik aztertu dabe euskal argitalpenen mun-dua eta, zuzendu dabezan kritikak ortik abiatu dira, onenbeste edo orrenbeste liburu edo gairen utsunea dagoela esanez.

7. Argitaletxeen ikuspegitik arlo au ikutuko bagen-du, diru-arloak maairatu bearra genduke, bakoitzak dituen eragozpenak aitatuz, Erakunde Publikoen jokabideak aztertuz, eta abar, eta abar.

8. Eta, besteak beste, nire kezka artean ezin bazter-tu izan neban gaur arteko Idazle Elkartearen eta Euskal Erriko Komunikabideen euskal argitalpenei buruzko jokabidea.

Oneek eta beste amaika arlo aitatu daitekez euskal Argitalpenei buruz itz egiterakoan. Gaia, beraz, zabala da eta, onetarako daukagun iru ordu lauren onetan itaunoi erantzun bat emoten aaleginduko naiatzue, nahiz eta ez lortu asieran aitatzen neutzuen sakontasun ori.

Gaiak, egia esan, merezi izango leuke aste oso bat berari begira antolatzea. Produktzioa zenbaterainokoa dan jakitea ondo dago; onetarako dagozan arazo eko-nomikoak maairatzea be bearrezko da; baina planteamendu asko eta asko sozio-linguistika eta pedagogia ikuspegitik egin bearra be ukaezinekoa deritxot. Eta Bizkaian honelakoak egin ezik, ondorioak orain arte-koak baino tamalgarriagoak izateko arriskua lit-ateke.

Oarra: Dana dala, gaurko itzaldi onen gaiari buruz sakondu nai leukeenak zeaztasun geiago aurtikuko leu-ke Juan Maria Torrealdyren lanetan edo/eta umeen literatura buruz Severino Calleja eta Xabier Monosta-riok gertatu daben ikerlanean.

LIBURUGINTZA

Liburugintzaz zeozer esaten asi baino leen, oar batzuk egin nai neukez.

1. Naitanaiezko da Textu-Liburuak eta Irakur-Libu-ruak banan aztertzea.

2. Irakur-Liburuak aitatzean, jokabide bi azalduko ditugu: batetik, Argitaletxeak, Erakunde Publikoen Lagun-tzaz 1985.ean argitaratutako produktzioa; eta, bestetik, Jaurlaritzak, Euskararen Arazoetarako Zuzendaritzaren bidez, Idazleak bultzatzeko erabili dauan jokabidea urte orretan.

LIBURUGINTZA

Eta, asiera-asieran esan dodanaren arabera, gaur bertan egiten dana bakarrik aitatuko dot, eta ez aurreko urteotakorik.

Beraz, asteko, EIMA programa aitatu bearra dago. ZER DA EIMA PROGRAMA, ba? EIMA Programa Euskal Ikasmaterialgintzarako egitarauari deitzen jako. Beraz, ikus daitekeenez, EIMA liburua bera baino zozker geiago da. Ez da liburua bakarrik. Ala eta guztiz ere, programa onen zati on bat liburugintzari zuzendua da.

EIMA Jaurlaritzako Sail-Ordetza batzuk eta Euskal Autonomi Elkarteke beste Administrazio batzuk, batera daroen egitarau bateri jarri jakon izena da.

Eta ezin esan azken urteotan emaitz on eta ugariak lortu ez diranik. Orain urte batzuk ikasketak euskeraz egin nai ebezanak ez eban ikasmateriala geiegirik izaten. Ortze daukagu Ikastolen kondaira, isilean, izkutuka eta aldean liburu barik zelan ibiltzen ziran umeak pöli-ziak zertan ebiltzan igarri ez egian. Ordurik ona politika egoerak asko aldatu dira eta euskal ikas-liburugintza ere bai.

Gaur egun errez aurkitu daitekez edozein asignaturarako Irakaslearen gidaliburuak, Ikaslearen testu-liburuak, Euskera-Irakaskuntzarako testu-liburuak, Irakaslearen lankoadernoak, Irakaslearen oinarrizko irakurgaiak, kontsultaliburuak, Monografi gaiak, Ariketa-liburuak, Gramatikak, Iztegiak, Entziklopedia orokorrak, Izkuntza-prestakuntzarako liburuak, Didaktina eta Pedagogia Prestakuntzarako liburuak, Ikasketa-programa ofizialak, Izkuntzazko orientabideak, eta abar, eta abar.

Eskolaurretik asi eta Unibertsitatera sartu orduko irakaskintza euskeraz egiteko posibilitateak dira gaur. Milla bederatzireun eta larogetabosteko Ezkuntza Sailak onetarako eskainitako dirulaguntza-deialdira aurkeztutako eskabideak 197 izan ziran. Ikusi daigun, ba, deialdira aurkezteko jartzen ziran baldintzak:

1. Euskeraz idatziak izatea.
2. Ikasliburuak izatea, arauzko ikaspidetik kanpoko euskal ikasliburuak ere kontutan artu ahal izanik.
3. Lagungarritzarako ikasmaterialoi ere laguntza emongo jake:
 - a) Irakasle-aldizkariak.
 - b) Irakasmunduko informazio-gaiak.
 - c) Mapa eta orma-irudiak.
 - d) Izkuntza lantzeko izkuntz-jostailuak.
4. Lanak izan daitekez: sorkuntzazkoak, egokituak, laburbilpenak, itzulpen zuzenak edo egokituak.
5. Aurkeztu ezineko liburuak:
 - a) Bibliofilo-liburuak.
 - b) Ente publikoak argitaratutakoak.

- c) Doan banatzekoak.
- e) Bazkideentzak bakarrik elkarteak argitaratutakoak.
- f) Epeka saltzekoak.

Jarraitu geinke deialdi onek dituen bereiztasunak aitatzten, baina luzeegi urtengo leusku eta itzi egingo dogu.

Ondorioak, ostera, aitatu barik gelditzerik ez dago:

1. Erri onetan Unibertsitate aurreko ikasketak euskeraz egiteko posibilitate materiala ortxe dogu. Ezin da esan libururik ez dagoenik.

2. Ala izan arren, Bizkaian arazo bereziak ditugu, eta emen bai sortzen dirala kezka eta eztabaidak. Eta, nire ekitalditxu au amaitu ostean, elkarrizketa sakon bat eratzea egoki litzateke. Barrero ere ementxe dogu Bizkaian sarritan aitatzten dogun Lurralde Historiko onen euskeraren egoera.

Eta, eztabaidarako baino ez bada ere, itaun batzuk jarriko neukez maai gainean, kontutan izanik, alde batetik, dirulaguntza deialdiotan ez dala inoiz "bizkaiera" ez "baturik" aitatzten; eta, bestetik, Jaurlaritzako nire esperientzian Bizkaitik izan ditudan egitasmo-proposamenak zenbat izan diran.

Onetan autokritika egin bearra daukagu. Ez da nai-ko Ezkuntza Sailean batuzaleegiak dirala esatea edo/eta salatzea. Deialdiak ortxe dira, danontzat egiñak.

Ni emen ez nabil Jaurlaritzak bizkaieraz irakastera beartu bearko leuken ala ez esaten. Liburugintza soil-soilik aitatu nai dot. Eta onetan argi dagoena zera da: dirulaguntza berbera izanik, bizkaierazko produkzioa urriagoa dala.

Beraz, leenengo itauna auxe litzateke: ZERGAITIK DA URRIAGOA BIZKAIERAZKO PRODUKZIOA?

Eta itauna KRITIKARAKO barik AUTOKRITIKARAKO maairatzen da. Eta au onela planteatzen dot arazo oso ezbardinegaitik: alde batetik, azkenaldi onetan bizkaieraren alde gogorren jokatzten dabenetarikoak ikusi ditut, Bizkaian bertan, itzaldiak erdi batuaz, erdi Gipuzkoeraz emoten; eta, bestetik, Jaurlaritzako nire esperientzia laburrean, bizkaieraren alde ekintza eta jokabide eraginkorrak planteatu ditudanean, erantzunik ez dot izan. *Beraz, autokritikaren premia nabaria da.*

Baina liburugintzan parte artzen dabenak ez dira idazleak bakarrik: ARGITALETXEAK be eginkizun aundi bat dabe. Onetan be BIZKAIERAZ ikasliburuak argitaratzen dituen bakarra IBAIZABAL dogu. Batuaz ari diranak, ostera, geiago dira. ZERGAITIK?

Ona emen bigarren itauna. Nik neuk, egia esan, inoren aurkako arrikadarik ez dot botako. EIMA egitarauan Jaurlaritzak eta beste Erakunde batzuk be artzen dabe parte. Aztertu daigun au be.

Pedagogia mailan bertan ere badogu zer jorraturik. Danok gogoratuko dozue oraindik dala urtebete edo Eibargo Udalak zelan antolatu ebazan "EUSKERA ETA EUSKALKIAK" izeneko iardunaldi batzuk. Itzaldi areek argitaratu egin dira oraintsu. Ponentzia areetan azaltzen diran arrazoi danak dira teorikoak. Au esatean ez dot esan nai ez dirala egiazkoak. Ez. Esan nai dodan bakarra auxe da: **BATUAREN OZTOPOAK AITATZEN DOGUZAN NEURRIAN EZ GARALA AALEGIN-DU, EXPERIENTZIA MAILAN, BIZKAIERAREN BENTAJAK AZTERTZEN.** Jokabide batek indarra artzen dauanean, erantzuna ezin da izan teoriko-ideologikoa bakarrik. Gaurko eskola sistema onetan "berbea berbearen kontra" jartzen dogu, eta ez besterik. Batzuk "oztopoak" direla aitatzten daben bitartean, besteak "ez dagoela orrelakorik" esanez gain, jokabide onurakorrago baten alde azaltzen dira.

Planteamenduok nigandik entzun bearra arrigarri egingo jatzue bateri baiño geiagori. Baina ez da izango emen nai litzatekeen jokabidearen aldeko ez nazalako. Ez. Baina eguneroko errealtatea ikusirik, naitanaiezkua deritxot oneako arazoak aitatztea. Nire ustez, danok bat gatzozela esateko emen batu bearrik ez daukagu. Azken baten obakuntza baten aldeko bide barriak zeintzuk diren aztertu eta orretan oinarritu bearra daukagu, Bizkaia euskaldun bat lortu nai bada beintzat.

Norbere barik a bestea errudun egitea jokabiderik errezana izan bada be, sarritan ez da onurakorrena izaten.

IRAKUR-LIBURUAK

Textu-liburuak eta Irakur-liburuak banan aitatuko ditudala esan deusuet asieran, laburugintzari buruzko politika ala planteatu ta dago eta: Textu-liburugintza ezkuntza-Sailari dagokio; Irakur-liburugintza, ostera, **KULTURA ETA TURISMO SAILARI**, eta onen barruan nire ardurapean izan dan **EUSKARA ARAZOETARAKO ZUZENDARITZARI**.

Zuzendaritza onek liburugintzari buruzko bere jokabidean lau elburu nagusi ditu:

1. Euskerazko literatur liburuen produkzioa geitu.
2. Euskerazko liburuen salneurriak merkeagotu.
3. Sorkuntzazko lanak bultzatu.
4. Euskal Literaturak gaur egun dituen utsenerik nabarmenenak betetzen saiatu.

Lau helburuak lortzeko laguntza bereziak ditu:

1. Argitaletxeentzat, euskeraz argitaratzen daben liburu baktzagatik dirulaguntza, beintzat liburuaren salneurria 1.000 pezetatik beerakoa bada.

2. Idazleak bultzatzeko beak: bosteun mila pezeta-tako 20 beka urtean.

Argitaletxeentzako dirulaguntzak eskaintzerakoan ez ziran onartzen (1985.eko diru-kontuak aitatzten ari naz):

- a) Bibliofilo-liburuak.
- b) Ente Publikoak argitaratutakoak.
- c) Doain banatzekoak.
- d) Liburu-klubek edo antzekoak bazkideentzat bakarrik argitaratutakoak.
- e) Epekako salmentakoak.
- f) Elebidun liburuak.
- g) Urtekariak eta separatak.
- h) Umeentzako testurik gabekoak.
- i) Testu-liburuak eta ikaskuntz-irakaskuntzarekin bereziki zerikusia daukenak.

Baldintza oneek jarri ondoren, Argitaletxe bakoitzari liburu bakoitzaren fitxa-teknika bat eskatzen geuntsan, zeaztasun orren arabera liburu bakoitzaren kostua kalkulatzeko. Au egin ondoren, liburu bakoitzaren defizita burutzen aalegintzen ginan, laguntzeko genduzan 25.000.000 pezetak danen artean banandurik, bakoitzari egokionaren arabera.

Beste bein, barriro be aitatu egin bear, autokritikarako asmoz, laguntza oneetara aurkeztutako Argitaletxen izenak:

– Elkar	110
– Erein	30
– La Primitiva Casa Baroja	30
– Hordago	22
– SUSA	18
– Haramburu Altuna	14
– Auspoa	10
– Txertoa	9
– IBAIZABAL	8
– Pamiela	7
– Xabier Gereño	7
– Labayru Ikastegia	6
– Editorial Mensajero	5
– Tartalo	5
– Instituto Politécnico Salesiano	4
– Urtzi Iza	3
– Mikel Zarate Ikastegia	2
– Desclee de Brouwer	1
– Inocencio Ayerbe	1
Guztira	292

Onelako deialdi ireki batera aurkeztutako liburu kopuru osoa zein euskalkitan idatzita dagoen aztertzen badogu, leenengo begira datorkigun zenbakia auxe da: Bizkaieraz idatzitako liburuak ez direla %6ra eltzen.

Euskeraz dakien biztanlegoa kontutan artzen badogu, argi daukagu bizkaierazko gure produkzioa eta batue-razkoaren artean orekarik ez dagoena. Euskaldun erdiak Bizkaian bizi dirala jota, erdi oneentzako gure produkzioa %6ra be ez da eltzen. Baina datu au gogarte baterako baiño ez da.

LIBURUGINTZA

Jarraitu daigun 1985.eko urte onetan ze euskal liburu mota argitaratu zan ikusten:

— Eleberriak	86	% 29,50
— Ipuinak	63	% 21,57
— Kontaketa laburra	34	% 11,64
— Saiakerak	26	% 8,90
— Komikiak	24	% 8,21
— Olerkiak	24	% 8,21
— Bestelakoak	23	% 7,87
— Antzerkia	6	% 2,05
— Bertso t'abestiak	6	% 2,05

Genero literarioetara jo dogun ezkerro, esan daigun zeozer euron orijinaltasunari buruz:

— Sorkuntzazkoak	% 44,19
— Itzulpenak	% 32,53
— Berralgitalpenak	% 23,28

1985. urte onetan, dirulaguntzak luzatzerakoan, itzulpegintzarako jarritako diru-kopurua 5.000.000takoa izan zan, beste 20.000.000ak sorkuntzara zuzenduz.

Argibide onen arabera, laguntzoi esker estalitako defitaren batz-bestekoa auxe izan zan:

- Sorkuntza lanetako defizit Ponderatuaren: % 59a
- Itzulpen lanetarako defizit ponderatuaren: % 29a.

Ikusi daikezuenez, 1985.eko urte onetan, sorkuntza itzulpegintza baino geiago bultzatzeko asmoa agertzen da jokabide onetan.

1986. Jaurlaritzaren diru-kontuetan, antzerako jokabide bat artu genduan. Azken baten, sortu genduan aldaketa ia bakarra itzulpenak eta sorkuntzazko liburuei laguntza berbera emotea izan zan. Bestalde, diru-kopuru aldetik, urte onetan 32.500.000 pezeta emongo jaken argitaletxei (aurreko urtean baino 7.500.000 geiago).

Urte onetako (1986) deialdira aurkeztu ziran argitaletxeak auexek izan ziran:

<u>Izenak</u>	<u>Liburuak</u>
Elkar	68
Erein	22
Kriselu	14
Secretaria Diocesana	12
Sendoa	12
Pamiela	7
Susa	6
Xabier Gereño	6
Casa Baroja	5
Hots Aldizkaria	5
Kili-Kili	5
Labayru Ikastegia	5
Txertoa	5
Urtxiadarra	4
Euskerazaintza	3
Ibaizabal	3
Auspoa	2

Idatz	2
Mikel Zárate	2
Ediciones Alderdi	1
Zabala Jesús	1
Zubikarai Augustin	1
Guztira	191

Leenengo ondorioa: 1986.ean aurreko urtean baino 101 liburu subartzionatu gitxiago argitaratu da, naiz eta Jaurlaritzatik 7.500.000 pezeta geiago izan ekintza onetarako.

Bestalde kontutan artu behar 1986.eko baldintzak zabalagoak izan dirala: itzulpenak sorkuntzazkoak artuko eben beste diru artu eben. Beraz, onetarako be erretzasun geiago eskaintzen zan.

Originaltasunari begiratzen badeutsagu, 191 liburutatik:

- 119 sorkuntzazkoak ziran; beraz, % 69
- 64 itzulpenezkoak ; beraz, % 26
- 5 Egokitzapenezkoak ; beraz, % 3
- 3 Liburubilpenak ; beraz, % 2

Generoetara jota, hona hemen laburpena:

- 68 Ume eta Gazte ipuin; beraz, % 35,7
- 41 Eleberri ; beraz, % 21,5
- 16 Kontaketa labur ; beraz, % 8,4
- 15 Erljio liburu ; beraz, % 7,8
- 11 Olerki ; beraz, % 5,8
- 9 Antzerki ; beraz, % 4,8
- 8 Komiki liburu ; beraz, % 4,2
- 7 Saiakera ; beraz, % 3,6
- 5 Bestelakoak ; beraz, % 2,5
- 4 Ikerlan ; beraz, % 2
- 3 Bertso eta abestiak ; beraz, % 1,6
- 3 Biografia ; beraz, % 1,6
- 1 Bidai liburu ; beraz, % 0,5

1985 eta 1986aren arteko aldeak ikusi nai bagenduz, bizkaieraren aldetik atera daitekezan ondorioak auxek dira: azkenengo urte onetan aurrekoan baino liburu bi gitxiago argitaratu izan dira bizkaieraz. Beraz, beerakadtxua izan dogu.

Une onetan itz egiten deusuen bano baikorragorik izan daiteke, bearbada, zuen artean. Eta, beerakada onen aurka esan: bi gitxiago ez dala asko, edo eta liburu-kopur osoa kontutan arturik, batz beste bizkaierazko urteko produkzioa % 8,37 izan danez, aurreko urtean baino obeto ibilli garala.

Ikuspegi gordiñez aztertu ezkerro, ostera, 191 liburutik bizkaieraz 16 o 18 argitaratzea ez deritxot geiegi.

EUSKAL KLASIKOEN BILDUMA

Gaur aurrean dituzuen liburuok Bilduma baten leen zazpi aleak baino ez dira. Eta beraien aurkezpena egite-

rakoan, Bildumaren beraren nondik norakoak ere aipatu nai dizkizuegu.

Iazko urtean liburugintza beste bein bultzatzea erabaki genuenean, bi jokabide berezi artu genituen: alde batetik, oizkoa: Argitaletxei euskal liburuak argitaratzeko dirulaguntzak luzatuz; bestetik, bear-bearrezkotzat jotzen genuen euskal klasikoak zabaltzeko jokabideren bat artzea.

ZERGATIK EUSKAL KLASIKOAK ZABALDU?

a) *Orain arteko aaleginak* ezin ditugu inola ere aaztu ez baztertu. Argitaletxe batzuk (HORDAGO eta LABAYRU, adibidez) eta EUSKALTZAINDIK berak ere argitaratu dituzte ale batzuk orain arte ere. EUSKO JAURLARITZAK, ekintza auen osagarritzarako. BILDUMA au kaleratzen asteko erabakia artu zuen, baina, jakina, osagarri izateko asmotan.

b) *BILDUMA onen BEREITASUNEN* artean auek aipatuko genituzke:

b.1. Aalik eta zabalkunderik aundiena egitea nai genuke.

b.2. JAURLARITZAK berak zabalduko lituzkeen liburuetatik aparte, edozein irakurlek erosteko aukera izateko salneurrian jarriko dira.

c) *Euskara beste hizkuntzen mailan jarriaz*, gure klasikoan Bilduma sortzearen bearrizanari erantzun bat eman nai izan diogu.

KANPOKO IRITZIAK JASO

Bearrizana asera-aseratik ikusi egiten bagenuen ere, Erri mailako berezilari eta ez berezilarien iritziak ere ezagutu nai izan genituen. Eta erantzuna bereala jaso ere bai: elkarrizketatutako Euskaltzain batzuk, Literaturazko Irakasleak, Argitaletxeek beraiek eta beste batzuk animatu egin gintuen Bilduma egitasmo oni aurrera eragiteko.

Au onela izanik, Ezkuntza Sailarekin arremanetan jarri ginen, elkarrekin lan au argitaratzeko asmoz. Eta ala izenpetu genuen itzarmena ere. Beraz, zazpi aleok argitaratzeko dirulaguntza onela jarria izan da: KULTURA SAILAK 3.818.181 pezeta eta EZKUNTZA SAILAK 1.272.728 pezeta.

ARAZOAK:

Bilduma batek beti ditu arazo berezi batzuk; adibidez:

1. **Norentzako Bilduma:** Norentzako galderari erantzutean, nolabait NOLAKO bilduma ere planteatu bea-

rra izaten da. Eta, ona emen, gure asmoa: EUSKO JAURLARITZAK ez du nai izan goi mailako irakurlearentzako bilduma bat argitaratzea. Irakurle arruntarentzako bilduma baten bila saitu da, onetarako ale bakoi-tzari itzaurre batzuk eta oarrak erabiliz.

2. **Obren aukeraketa:** "Norentzat" eta "nolakoa" planteatu ondoren, nolako obrak ere pentsatu bearra zegoen. Eta, euskaltzale eta irakasle mordo baten iritziak entzun ondoren, XIX. gizaletik astea erabaki genuen.

Mitxelena Jaunaren itzaurrean irakur dezakezuenez, ez da XIX. gizalet osoa artu. Gizalet onetan bertan ere ez gara gelditu, ABARRAK XX. gizaletkoa da eta.

Baina, oinarriaz, aukera onela egin da: XIX. gizalettik asita, gaurko idazkeratik urbilago aurkitzen direlako eta, ondorioz, bai edizio-gertatzaileentzat eta bai irakurlearentzat berarentzat ere errazago izango delakoan.

Obra aukeraketarako aolku eta iritzi emaileen artean auek izan ditugu: Jose Antonio Mujika, Manu Etxebarria, Antonio Zabala, Adolfo Arejita, Lino Akesolo, Patxi Altuna eta Ibon Sarasola.

3. **Letraldatzerako irizpideak** ere bearra izan zen: irakurle arruntarentzako Bilduma izanik, irakurketa erraztea ere planteatu bearra izan genuen; eta onetarako, besteak beste, grafia aldaketa batzuk izan dira.

Onetan iritzi-emaile nagusi Koldo Mitxelena, Patxi Altuna eta Ibon Sarasola izan dira.

4. **Euskararekiko trataera** ere aztertu bearra izan zen. Orain arteko onelako argitalpenetan irizpide ezberdinak jarraitu izan dira eta: batzuk jatorrizko idazkeraz argitaratu dituzte; beste batzuk, euskaltitik batura aldatuta, eta abar.

Bilduma onetan jatorrizko idazkera errespetatzen saiatu dira argitalpen-gertatzaileak, eta aldaketarik egiteko erabakia artu dutenetan, itzaurrean bertan edo/ eta oar bidez azaldu dute aldaketa.

5. **Itzurregileak:** Bilduma onek itzaurre mota bi ditu: alde batetik, argitalpen-gertatzailearena eta, bestetik, Koldo Mitxelenak idatzitako itzaurre orokor bat, ale auek idatzi zireneko literatur giroa azalduz. Era onetan, irakurleak irakurketa errazago bat egin aal izango du: Mitxelena Jaunarenak inguru-girotuko ditu; argitalpen-gertatzailearenak jatorrizko textuaren aldaketak azalduko dizkio.

6. **Azkenaldiko arazoak:** Epe laburreak arazo askori aurre eman bearra izan dugula esan bearririk ez dago. Sarritan bilduma baten oinarriak jartzea izaten da lanik zailena. Guri ere onelako zerbait gertatu zaigu. Eta, ondorioz, urtea bukatzeko gutxi geratzen zitzaigula, bi arazo izan genituen: bata, aukeratutako lan guztiak gertatuta ez zeudela; eta, bestea, urtearen azken ilabetetan inpretek ez zutela nai baina liburu kaleratzeko astirik izan.

LIBURUGINTZA

Onetan naitanezkoa dugu EUSKAL EDITOREEN ELKARTEAK ez duen aalegina. Eta aalegin orren emaitz ditugu gaur aurrean ditugun zazpi aleok.

ASERAN AUKERATUTAKOAK:

1. Ama Euskeriaren Liburu kantaria (Arrase Beitia)
2. Bertsoak (Bilintx)
3. Brabanteko Genoveva (G. Arrue)
4. Ipiuak (P. M. Urruzono)
5. Bein da betiko (R. M. Azkue)
6. Bi Saindu (Lapitz)
7. Piarres Adame (Elissanburu)
8. Laborantzako liburua (Duvoisin)
9. Baserritar nekezalientzako eskolia (J. J. Moguel)
10. Fábulas en Dialecto Vizcaíno (J. Mateo Zabala)
11. Abarrak (Kirikiño)

ARGITARA GABEKOAK ORAINGOZ

1. Ama Euskeriaren Liburu Kantaria (Arrase Beitia)
2. Brabanteko Genoveva (Arrue)
3. Ipiuak (P. M. Urruzono)
4. Baserritar nekezalientzako eskolia (J. Jose Mogel)

Epeak motzak izan dira, eta ezinaren eraginez gertatu dira argitaratzake. JAURLARITZA onen asmoz eta gogoz 1987.ean BILDUMA onek aurrera egin bear-ko luke. Azken lau obrok laister argitaratzeko eran aurkitzen dira, eta, gure ustez, gaurko politika egoera onen ondorioz sor daitekeen Gobernuak argiratu egin bear-ko litzuzke. Gertatuta dauden aukeratu, eta Bilduma au osatzen jarraitu.

ARGITALPEN-GERTATZAILEAK:

Gaur emen aurkezten dugun lako Bilduma bermetasun osoz argitaratu nai izan dugu. Onen ezaugarritzarako nai litzateke partear-ten izenak aipatzea:

- Koldo Mitxelena
- Patxi Altuna
- Ibon Sarasola
- Itziar Laka
- Inés Pagola
- Antonio Zabala
- Anjel Zelaieta
- Josu Pikabea

ZABALKUNDEA ETA SALNEURRIAK

Prentsaurreko onen aseran esan dizuegunez, Bilduma onen bi elburu auexek ziren: —abalkundu aundi bat egitea eta aalik eta salneurrik erosoenean salgai

jartzea, edozein irakurle arruntek erosteko eran. Eta elburuok lortu ere lortu ditugula uste dut.

Zabalkunde aldetik: KULTURA SAILAK 100 txorta bananduko ditu; EZKUNTZA SAILAK, 900 guztita, bi Sailon artean 7.000 liburu bananduko ditugu Euskal Errian zear.

EUSKAL EDITOREEN ELKARTEAK, bere aldetik, ale bakoitzeko 2000 jarriko ditu salgai, salnerria onela izanik:

- 300 orrialde artekoak, 450 pezetatan
- 250 orrialde artekoak, 375 pezetatan
- 200 orrialde artekoak, 300 pezetatan
- 150 orrialde artekoak, 225 pezetatan

Batez beste jokatuz gero, Bilduma onetako liburu bakoitza 300 bat pezetatan salduko da.

Euskal Herrian zear bananduko diren —doan bananduko diren aleak kontutan artuz gero— salneurri ori oraindik merkeago izango litzatekeena argi dago.

LABURBILDUZ

Aleok BILDUMA onen leen aleak baino ez dira, edo ez lirateke izan bear. Baina, onetaz zer gertatuko den geroak erakutsiko badigu ere, gaurko auetan erraz ikus daitezke zeaztasunak auexek dira:

1. Bilduma hau ez da filologo jakintsuentzat asma-tutakoa. Baina, bestalde, Mitxelena Jaunaren itzak jarraituz, ez dugu uste letratuen landuenari ere kalterik egingo dionik.

2. Aukeratutako garaiaz zera esan bear: haserako aleak dira eta gaur aurrean dituzuenok ez dute XIX. mende osoa betetzen gaurkoz.

3. Itz lauz eta neurtuz idatzitakoak dira leen aleon artean.

4. Euskalki aldetik, zuberoraren utsunea aurki daiteke. Eta ala izan da bearbada euskalki au zailena biur-tzen delako Ego Euskadiko Irakurle arruntarentzat. Salbuesnak salbuespen, euskalkien arteko oreka bat bilatzen saiatu gara.

5. Gai aldetik, aukeraren arabera, esan daiteke orain-go onetan eleizgaiak ez direla nagusi.

6. Gero begira, BILDUMA onek jarraipenik izaten badu, —bearrianak eta iritziak kontutan izanez gero, ala beharko— egoki litzateke bilduma ugaritsu bat argitaratzea: bai liburuaren zabalkundera, bai euskal idazle klasikoaren ezagupenerako eta bai salneurri merke eta eroso baten gure literatur emaitzak eskuratu aal izateko.

Klasikoaren Bilduma onen barri emon deusuet. Baina orain arte esan ez dodana azaldu bear-ko neuskitsue emen, isilean baino ez bada be. Bilduma onetan obra eta argitalpen-gertatzaile batzuren izenak agertzen dira.

Baina deituak izan eta parte artu ez dabenak beste ainbeste edo geiago dira. Zergaitik? Ona emen barriro sortzen jatan kezka, batez be kontutan izanik zerrenda orretan falta direnak bizkaieraren alde dagozanak dirala.

Euskalki aldetik, ostera, gaur arteko bildumetan gertatu ez dana gertatzen da; eta ez nik neuk aukeratutako obrak diralako. Ez. Aukeraketa au katedratiko batzuren artean egindakoa da.

Dana dala, zazpi ale oneetatik 3 bizkaieraz, 1 gipuzkoeraz eta 3 iparraldeko euskalkietakoak dirala ikustean, esan daiteke euskalkietan argitaratutako en zabal-kunderik aundiena egin dala Jaurlaritzatik: 7.000 ale doan banandu dira.

1981.etik 1985ra liburugintzan —literaturgintzan— egin diran aaleginak ikusteko dato urri batzuk emongo deusuedaz:

	1981	1982	1983	1984	1985	1986
Liburuak	95	75	71	185	292	191
Dirua	8.331 M.	18.500 M.	13.509 M.	20.000 M.	25.000 M.	32.000 M.

ALDIZKARIGINTZA

Arlo onetan ez deusuet ezer aitatuکو Gobernuaك berak, HABE bidez, argitaratzen dituen aldizkarietz. Or dituzue HABE bera, HABEKO MIK eta UNESCO ALBISTARIA.

Oneetatik aparte Euskalerrian 1985an diruz lagundu genduzan Aldizkariak 21 izan ziran. 1986an onetarako erabilitako dirutza 22.500.000 pezetatakoa izan zan.

Eta politika aldetik azken urte onetan Aldundiekaz batera artutako erabakia auxe izan zan: Jaurlaritzak Euskal Herri osoan zabaltzen zirenak bakarrik laguntzea, dirulaguntza jasotzeko baldintza astekaria edo/eta ilabetekaria izatea eskatzen zan.

Auxe zan erabagi orikorra, eta salbuespentzat artzen genduzan: JAKIN, ELHUYAR, SENEZ eta IDATZ & MINTZ.

Beste aldizkari guztiak Aldundietara eta Udaleta jo bear eben.

Dana dala, arlo oni kritika orokor bat egin gura bageuntso zera aitatu bearko litzateke:

1. Euskal aldizkariak tirada urrikoak direla.
2. Salbuespenak salbuespen, euskal aldizkarigintzak dituen utsetariko batzuk irakurgarritasun eta atsegingarritasun eza dabela dabela geienak, bai itxuraz eta bai edukiz.

Beraz, onetan zeozer baino geiago aldatu bearko genduke, bai Erakundeetatik erabiltzen dan jokabidean eta bai argitaratzaileen aaleginetan.

Aldizkaria	Argitaralekua	Izaera	Maiztasuna	Tirada	Urtean zehar kalera-tutako zenbakiak	Zenbaki bakoitzeko batz besteko orrialde kopurua
— Karmel	Zornotza	— Denetarikoa	Iruilabetekaria	1.300	4	104
— Ttipi ttapa	Bera-Bidasoa	— Informazio orokorra	Iruilabetekaria	600	4	48
— Ttu-ttua (1)	Bilbo	— Literatur aldizkaria	Iruilabetekaria	1.000	4	40
— Korrok	Iruinea	— Informazio orokorra	Iruilabetekaria	1.000	3	75
— Saski-Naski	Donostia	— Informazio orokorra	Iruilabetekaria	2.000	4	112
— Goiz Argi	Donostia	— Informazio orokorra	Biilabetekaria	2.300	6	16
— Zenez	Donostia	— Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria	Lauilabetekaria	1.250	3	150
— Zer	Bilbo	— Informazio orokorra	Ilabetekaria	1.800	11	22
— Hots	Legazpia	— Informazio orokorra	Ilabetekaria	500	10	40
— Ipurbeltz	Donostia	— Aur eta gazteentzako aldizkaria (komikia)	Ilabetekaria	6.600	12	32

LIBURUGINTZA

Aldizkaria	Argitaralekua	Izaera	Maiztasuna	Tirada	Urtean zehar kalera- tutako zenbakiak	Zenbaki bakoitzeko batz- besteko orrialde kopurua
– Argia	Donostia	– Informazio orokorra	Astekaria	6.000	42	52
– Susa	Donostia	– Literatur aldizkaria	Iruilabetekaria	1.500	4	80
– Jakin	Donostia	– Giza-zientzietako aldizkaria	Iruilabetekaria	3.700	4	160
– Aizu!	Bilbo	– Euskara lantzeko aldizkaria	Ilabetekaria	5.600	11	52
– Idatz-mintz	Bilbo	– Literatur aldizkaria	Lauilabetekaria	1.500	3	32
– lintza	Irun	– Denetarikoa	Lauilabetekaria	300	3	40
– Literatur Gazeta	Donostia	– Literatur aldizkaria	(2)	2.000	(2)	22
– Auskalo	Oñati	– Informazio orokorra	Ilabetekaria	500	9	36
– Nondik	Ataun	– Denetarikoa	Seiilabetekaria	200	2	90
– Porrot	Billabona	– Literatur eta giza- zientzietako aldizkaria	Urtekaria	1.000	1	60
– Urtziadarra	Bilbo	– Denetarikoa	Iruilabetekaria	1.200	4	8

(1) Ttu-ttua aldizkaria berrikitan desagertu egin da.

(2) Literatur Gazeta aldizkariak ez du maiztasun fijoarik.

EGUNKARIGINTZA

Erriak pendiente dituen arazo bi EGUNKARIGINTZA eta BARRI AGENTZIA dira.

Nire Jaurlearitza sartu nintzanean AGENTZIA sortu Legebiltzarraren agindua izan neban maai gaiñean. Egitasmoa ona benetan, naiz eta sortzen zan elbururako osoa izan ez. Au zala eta, beretzat osagarri eta Euskal Errirako azken urteetako amets zan EGUNKARIGINTZA bultzatzeko erabagia artu zan Kultura eta Turismo Sailean.

Arazoa ez zan bat be arreza, egitasmo zeatz onetarako dirurik ez zan eta. Baina, diruak diru, arrazo politikoa ez zan txikiagoa: ortxe genduan urteetako polemika: NOIZ SORTUKO EUSKAL EGUNKARI bat? NORK ARGITARATUKO?

BAT itza erabili izan da bein eta barriro. Baina alkar ulertze eziñagaitik —paper erosketarako bertarako ere ez dira gaur arte konpontu egunkari-aldizkariak— diru eskaintza egunkari guztiei egin jaken. Baietza emon ebenak DEIA eta EGIN BAKARRIK IZAN ZIRAN, eta eurei luzatu jaken dirulaguntza.

Erri onek astero egunkari biren aukera izan egien, egun ezberdinetan argitatzeko eskakizuna zuzendu jaken, eta ideia au biak onartu eben.

Beraz, leen pausoak emon dira. Ikusi egin bear orain noiz emongo. dan eta zelan bigarren pauso aundi hau: ASTERO ARGITARATZEN DIRAN BLOK EGUNKARI BIURTZEA.

Eta beste barik, zure itaunei erantzuteko prest, artu egizue nire agurrik beroena eta parkatu geiegi luzatu banaz.



IÑIGOREN IZEN-ABIZENAK

Iñigo Loiolakoak *iru izen* erabili ebazan bere bizitzan: Eneko, Iñigo eta Iñazio. Berezko eta asierako izena *Eneko* zan, Azpeitiako papere zaarretan agertzen danez. Erroman be izen orrekin izenpetu eban, Aita Santuari, Jerusalem'era Joateko baimena eskatuz, egin eutsen eskabidean: *Enecus de Loyola*. Ogeita amabi urte ebazan. Badirudi orixe zala bere izen ofiziala: *Eneko*.

Gerora, La Sorbona Paris'eko Unibersitatean sartzeko, izena aldatu eban, Eneko'ren ordez *Iñazio* ipiñiez: *Ignatius de Loyola*. Izen barri ori erabiliko dau baita, Maixutzako agirietan.

Bi Maixutza jaso ebazan: bat Arteetan eta bestea Teolojian. Titulu orrek irakaskintzarako eskubideak emoten ebazan eta eskubide orreik bearrezkoak ebezan bai Iñaziok eta bai bere lagunek be. Andik aurrera Maixu lez agertzen danean beti *Maestro Ignacio* izenarekin egingo dau.

Or daukaguz bere bizitzako aro desberdinbitan izen ofizialbi: asieran *Eneko* eta aizkenean *Ignacio*. ¿Eta, bien bitartean?

Bien bitartekoa dogu *Iñigo*: errian, lagunen artean, senitartean... beti izango da, asieratik amitzeraino, *Iñigo*. Etxean bere Eneko izena Iñigo'ra aldatu eutsoen eta beti, gauza ofizialik ez danean, izen orrekin agertuko jaku.

Eneko, Iñigo, Iñazio eta gaur, barriz, Iñaki.

Orra lau izen gizon ospetsu batentzako.

* * *

Abizenak. Bi etxe ebezan, torredunak: bat mendian *Oñaz* izenekoa; bestea ibarrean, *Loiola*. Etxe onetatik artu eban bere abizena: *Iñigo de Loyola*. Bere aurrekoek ostera, *Oñaz* etxetik be artu eban. Zaiñak Iñigori etxe bi orreitatik datorkioz. Beste aurreko batek *Lazkano* artzen dau.

Ona iru etxe eta iru abizen loiolatarren artean: *Oñaz*, *Loiola*, *Lazkano*. *Oñaz*'tik sortu ziran *Oiñaztarrak* eta oneik *Ganbotarren* aurka burrukatzen eban. Alderdi bi burrukan, alkarri erasoten. *Oñaztarraren* buruzagi, *Lazkano* eta *Loiola*.

Burruka giroa, odol giroa... Bitartean, nagusikeri orreri aurpegia emoteko, sakabanatuta egozan etxeak alkarren inguruan *batzen* asi ziran eta orrelan sortu ziran *erri-billak*. Erderazko "villa", nere ustez, ortik sortuko zan, euskerazko "billa" edo "bildutik".

1451'an, Iñigo jaio baiño berrogei urte lenago, Aide Nagusiak, Gipuzkoako jauntxoek, eupadea egin eutsen billa orrei: Deba, Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Ordizia,

Segura, Getaria eta Mutriku'ri. Danen artean Anaidi bat sortu eban alkarren laguntzarako.

Eupada eta eraso au dala-ta, Henrike IV'ak, Aide Nagusien etxe-torreak moztea erabazi eban eta arrezkeroz Loiolako torreak bere goi-zatiak ladrilluz egiñak ditu ariaren ordez.

Gaiñera, egoaldera bialdu ebazan, Ximena ingurura, moroekin burrukatzera euren kontura eta euren soldaduekin. Lau urte iraun eban erbeste arek.

Alaz ere, Erregearen babesik ez eban galdu, eurak eta euren aurrekoak moroen kontrako burruakaitik.

ARRINDA'TAR ANES

GORAGO BETI, ZEURE GOGO ORI...

Serantes inguruan odei gorriak,
eguzkia sartuta mendin atzian.
Illunak asi dira lurrez ganian,
argi dago bakarrik sarkal-ortzia.
Illunabarra...

Astiro, astiro, eguzkia jatsi da...
Aize otzak otzitu daust biotza;
Alaitasuna, ezta neure laguna.
¡Gorago beti, zeure gogo ori!

Itxas erdian dago anai maitia,
Mexiko'rantza duan itxasontzian.
Onantza bigurtzen dauz bere begiak.
Euzkadi da berentzat, gaur sorkaldia.

Eta ikusten dau itxas ganetik
eguzkia jagiten disditsu, gero
abestuten asi da, alai ta bero.
¡Gorago beti, zeure gogo ori!

Gizonen oldozpenak, uts-utsak dira.
Eguzkia ilten zeure begiaz,
ikusi dozu, ta iezta egia!
Gorago beti, zeure gogo ori!

¿Noraño altsa biar dot biotz epela?
Jaungoikuaganaño
Bera da Egia,
Bizitza ta Bidia.

UTARSUS

OTO KONBIRATUA

Oto Australia'tik etorri zan eta Pototo'rekin topo egin ebanean, onelan diñotso bere lagun maiteari:

—Aspaldiko! Zenbat urte alkar ikusi barik... Egun au ospatu egin bear dogu, Pototo.

—Pozik, mutil.

—Zer egingo, dogu?

—Egin dagigun aparitxo bat gaur berton. Ondo deritxok?

—Ederto, ederto.

—Eta, non?

—Neregaitik kezkarik ez izan: esan emazteari aparitako plater bat geiago ipintzeko maiean eta an izango nazela bederatzietarako puntu-puntu...

* * *

GABONETAKO ESKEINTZAK

Otok eskuetan pardel bat dakar, paper politez bildua.

—Zer dakarrek or, Oto?

—Gabonetan gaiagozak...

—Eta?

—Badakik, andrea gozo tratatu bear...

—Joxeparentzako erregaloo...?

—Bai, orixe.

—Eta, zer eskatu dua andre Joxepak?

—Bisontezko jantzia ala garbikiña bat. Aukeratzeko zer.

—Pardel orretan bisontezko jantzia dakarkiot emazteari.

—Orelako zeredozer.

—Zorionak, mutil. I az senar tajuzkoa, i...!

—Kontu egik, ez dagoela merkatuan imitaziozko garbikiñik.

* * *

GOIZIK

Larunbat arratsaldetan urtentean eban Otok etxetik; baiña, noizko etorri? Andre joxepak ezin eban bere senarrarekin burutu: beti asarre berandu etorri eta sekulan ez zalako oitik jagiten.

Goiz aretan Oto alai ebillen bere bizarra kentzen. Andrea gerturatu jakonean, onelan diñotzo Otok:

—Andratxo, gaur ez zara asarre egongo berandu jagi nazelako...

—Arpa jotera al zatoz?

—Arpa jotera? Ez, andratxo, ez.

—Zertara, ba?

—Ara nire erlojuak zer diñon: bederatzia puntu.

—Bederatzia puntu, eta zer?

—Goiz dala, emakume. Jai-eguna eta goizeko bederatzia!

—Bai, bederatzia bai; baiña, jaia atzo zan eta ez gaur. Gaur astelena dozu...

—Eneee...!

* * *

POLTZA ALA BIZIA

Buru azkarra baiña ohea dala diñoe biotza zintzoa eta borondate ona. Au ez jakon palta gure lagun Oto'ri; baiña, buru bizkorra, batzuk zalantzan ipinten dabe.

Bateren batek ba-eban Oto'reggenako uste ona; orregaitik emon eutsoen milloi bat pezeta larruzko kartera batean Donostia'ra ereateko.

Beren kartera ori eskuan ebal ba-joian gure laguna arro eta tantaia baizen lerdin; baiña, orra bidetxu batean, arma eskuan ebal, gizaseme bat agertu:*

—Poltza ala bizial!

—Poltza, mutil, bizia baiña lenago.

—Ekarri, ekarri...!

—Tori diruok; ordañetan mesede bat eskatuko dautzut.

—Zer da? esan arin.

—Dirua artu egizu eta poltza niri laga.

—Ori besterik ez ba'da...

—Beste gauzatxo bat: poltza oneri tirotxo batzuek bota egiozuz. Orrelan zuloak ikusita, jakingo dabe nire nagusiek arrapatu egin daustela dirua.

Otok eskatu eban lez, ekin eutson tiroka larruzko karterari. Bost zulo egin eutsozan beste balarik ez ebalako pistola arek. Orduan Otok, patxara ederrean, atera kolkotik bere pistola eta onelan esan eutson gaizkilleari:

—Gora esku orreik. Dirua bere tokira eta ator nerekin orain...

Gero esango dabe Oto gizajoak ez dauala argirik bere kaskarrean.

* * *

GOSEA KENTZEKO

Bodegoi zaarreko mai luze batean egoan Pototo, Oto beste lagunekin. Pototo, argia zanez, aldizkaria irakurten asi zan. Erderaz, jakiña; euskaldunik ez eban irakurtzen da. Egon be ez. Gerrateko berri baltzak ziran: Frantzia, Ingalaterra eta Alemaniaren arteko gerra zitala. Alemania ito bearrean dauke beste guztien artean. Pototo irakurten:

—Alemania pide la pas.

—Ez eukan gose makala-Otok erantzun-lapak eskatzeko. Igeldo'pean ba-dagoz makiñatxo bat. Etorriko ba'lira...

JUANTXO-TXIKI, INBENTORE ZORAGARRI

Zineko pantalla zoragarri bat ba-dau umeak bere irudimenean. Bein ikusitakoa, berriro ikusi aal izateko aalmenak badiu irudimen aretan. Barrero ikusi oso-osorik naiz zatika. Eta zati orreikaz gauza barriak sortarazi.

Orra Juantxo-txikiren bi zeregin:
ikusitakoak berrikusi
eta ikusitakoekaz barriak sortarazi.

* * *

Zelan egiten dau sortarazte ori? Zaarrekaz barriak zelan sortzen dauz? 'Rompecabezas' baten antzera jokatuta: bein ikusitako gauza desberdiñakaz, puskak eta zatiak alkarri lotuta, sortzen dauz irudi barriak. Gero, irudi orreik eta begietatik barrura etorri jakozanak, kanpokoak, biak nastetan dauz.

Egiak alde egin dautso.

Ez da konturatzen egi ori kanpotik etorri jakon, ala bere barruan sortutako izakiren bat dan. Ortik datorkio Juantxo-txikiri guzurak esaten astea. Juantxo-txiki, gezurti.

* * *

Inbentatzeko erreztasunak be badiu Juantxo-txikik; begien aurrean ez ditunak ikusteko be bai. Bere barruko irudimenearen pantalla orretan ikusten ditu kanpotik ikusten ez diranak: sukaldeko aulki zaarra, autobusa izango da bere irudimenean eta itxuragabeko egur zati bat, barealdiko itsas-ontzia.

Erreztasuna dau artarako.

Bere andere, andrako, panpin eta muñekoak jan da lo egiten dabe; poza eta miña asmau be bai. Berak bere irudimenean bizi-arazten ditu.

* * *

Guzurrik esaten ba'dautzu Juantxo-txikik, ez guzurtizat artu emen idatzitakoak begien aurrean artu barik. Guzurra ala bere irudimeneko naastea ote dau?

Injustizirik, ez.

* * *

Sinistuko dautzuz esandako guztiak Juantxo-txikik. Berarentzat ez dago ezer eziñik: sorgiñak, ireltxoak, prakagorriak, lamiñak... guztiak dira beretzat izaki bizi-biziak.

Ez eiozu guzurrik esan.

Diranak diran lez esan: egiak egi lez, kontuak kontu lez. Egiak eta kontuak ez nastau. Kontua egizat emoten ba dautsozu, biak nastetan dauz guzurra esanez. Egunen batean konturatuko da guzurra esan zeuntsola. Egun aretatik ez dautzu ez konturik ez egirik geiago sinistuko.

Bere gurasoengan eban siniste oso-osoa bat-batean osorik galduko dau.

* * *

Jolasak oso jakoz gogoko Juantxo-txikiri; baiña, jolasetan dana osorik artzerik ez jako ainbeste gustatzen, asmatzaille egiten ez badau. Naiago dau bere aldetik zertxo bat ipiñi bearra jolaserako. Amar milla jostallu polit geldoekin, osorik egiñakin baiño obeto dabil Juantxo-txiki upel zaar baten kurpillarekin korrika kalean zear...

* * *

Bere buruko irudimenak oso bizirik bizi ditu Juantxo-txikik. Bizitasun orretik sortzen jako, bere barneko irudimenak egiteko irrika. Geuri be beste orrenbeste gertatzen jaku gure buruko gogaketak egintzetan mamitzeko irrika sortzen jakunean, geure buruaren jabe izan arren. Ori guri gertatzen ba jaku, geiago oraindik bere buruaren jabe ez dan umetxoari.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.